HAMASEIGARREN ERAKASPENA 

① ELHEKETA : ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA

1) Beñatek zer nahi ukan zuen jastatu?
2) Zerek harritu zuen Beñat? Erran zertako?
3) Zerek, bestalde ikar arazi zion bihotza Beñati?

# -3- IRUÑEKO ITZULIA

Beñatek ere nahi izan zuen yastatu, eta zerra bat ahoan sartu bezain sarri, bota zuen, haren gustu bitxia higuingarri zitzaiolakotz.

Merkatu hartaik atera eta yuan zen *Plaza del Castillo* haundira. Eta han ohartu zen nola yendea sartzen zen lur-pian, eskalerbati behera. ¿Zer ote zen han? Azkenian sartu zen eta begiek etzuten sinetsi nahi han ikusi zituenak.

¡Debru hiritarrak, ze gauzak asmatzen dituzten! Gogoratzen ahal diren pixitegi ederrenak eta garbienak, ba eta eskien ikuzteko untziak ere, bere mirailekin. ¡Gauza harrigarria! Gero baziren ere bizpahiru ganbera edo gela ,behar haundiagoak eta premiatsuak egiteko. Beñaten tripak Iruñerat yinezkioz nahasi-xeak baitziren, han sartu eta utzi zituen gorputzak atxiki nahi etzituenak... To, zion gizonak, orai nuk, orai, arin eta gustian...

Handik ateratzian, urbiltzen da musikariek duten aterberat, eta bat-batian entzuten du izigarrizko marruma-garrasi bat, orro itsusienian, kexu urragarri luze batian, bihotza ikaratzen zakona.

32 ERRAN = dire → dérivé du latin dicere

| Présent | INDICATIF Imparfait |
|---|---|
| Nik diot = je dis | Nik nion = je disais |
| Hik diok/n = tu dis | Hik hion = tu disais |
| Zuk diozu = vous dites | Zuk zinion = vs disiez |
| Harek dio = il dit | Harek zion = il disait |
| Guk diogu = ns disons | Guk ginion = ns disions |
| Zuek diozue = vs dites | Zuek zinioten = vs disiez |
| Heiek diote = ils disent | Heiek zioten = ils disaient |

## Ⓘ ADITZ IKASKUNTZA

31 higuingarri zitzaiolakotz 32_ To, zion
33_ orai nuk, orai arin 34_ bihotza ikaratzen zakona

31_ IZAN. Régime indirect. Indicatif Imparfait

Singulier

Hura zen = Il était

Hura (lui) zitzaitan (à moi) = il m'était
— " — zitzaizun (à vous) = il vous était
— " — zitzaion (à lui) = il lui était
— " — zitzaigun (à nous) = il nous était
zitzaizuen (à vous) = il vous était
zitzaien (à eux) = il leur était

. . . . . . . . . . . . . .

Zu zinen = Vous étiez

Zu (vous) zintzaizkitan (à moi) = vous m'étiez
— " — zintzaizkion (à lui) = vous lui étiez
— " — zintzaizkigun (à nous) = vous nous étiez
— " — zintzaizkien (à eux) = vous leur étiez

. . . . . . . . . . . . . .

Ni nintzen = j'étais

Ni (moi) nintzaizun (à vous) = je vous étais
nintzaion (à lui) = je lui étais
nintzaizuen (à vous) = je vous étais
nintzaien (à eux) = je leur étais

33. IZAN _ Conjugaison familière _ Indicatif _ Présent

| A homme | A femme |
|---|---|
| Ni nuk = je suis | Ni nun = je suis |
| Hi haiz = tu es | Hi haiz (hiz) = tu es |
| Hura duk = il est | Hura dun = il est |
| Gu gaituk = ns sommes | Gu gaitun (gitun) = ns sommes |
| Zuek zireztek = vs êtes | Zuek zirezte = vs êtes |
| Hek dituk = ils sont | Hek ditun = ils sont |